EAEko Ekonomia Ituna Galesek jarraitu dezakeen eredua da? EAE eta Galesko zerga-ereduen azterketa juridikoa

Edriga Aranburu Agirre
Doctor en Derecho Financiero y Tributario - *Deusto Business School*-Deustuko Unibertsitatea

.

Abstract: Bizi garen mundu globalizatu honetan, Estatu eta herrialdeen arteko harremana areagotzen ari da eta beraien arteko lotura ekonomiko eta finantzarioak gero eta nabarmenagoak dira. Horren adibide dira, besteak beste, administrazio publiko ezberdinetako ogasunek egiten duten lana zerga-federalismoa indartze aldera. Hala ere, ogasunen artean antzekotasunak egon arren, badaude ezberdintasun nabariak ere eta Ekonomia Ituna da horren eredu. Hau horrela izanda, herrialde ezberdinak jarri izan dira harremanetan EAEko erakundeekin bertako sistema ulertu, interpretatu eta beraien herrietan Ekonomia Itunaren sistema jartzeko balizko aukerak aztertzeko.

Horien artean Galesko herrialdea legoke, non ogasun arloan dituen eskumenak kontuan hartuta, antzekotasun gehien izan dezakeen EAEko sistemarekin alderatuz. Beraz, lan honen helburua da Galesko tributu-sistemaren deszentralizazio-eredua EAEkoarekin alderatzea. Ikerketa lan honek, zerga-sarrera eta gastuen banaketan sakontzea bilatzen du, Erresuma Batuko barne-desberdintasunak kontuan hartuta. Honek aukera ematen du bi eredu ezberdinen indargune eta ahulguneak aztertzeko, eta bi lurraldeek beren finantza-subiranotasuna nola erabiltzen duten ulertzeko.

HITZ GAKOAK: Ekonomia Ituna, Gales, zerga-federalismoa, finantza publikoak

Abstract: En el mundo globalizado en el que vivimos actualmente, la relación entre los distintos Estados y países es cada vez mayor y los vínculos económicos y financieros entre ellos son más evidentes. Ejemplo de ello son, entre otros, el trabajo que realizan las distintas haciendas para reforzar el federalismo fiscal. Sin embargo, a pesar de las similitudes entre las haciendas, existen diferencias notables y el Concierto Económico es ejemplo de ello. Por ello, distintos países se han puesto en contacto con las instituciones de la CAPV a fin de comprender e interpretar su sistema así como para estudiar las posibilidades de implantar en sus territorios el sistema de Concierto Económico.

Entre ellos se encuentra el país de Gales, el cual, teniendo en cuenta las competencias en materia de hacienda que tiene atribuidas, es el sistema que mayor similitud podría tener con el sistema de la CAPV. Por lo tanto, el objetivo de este trabajo es comparar el modelo de descentralización del sistema fiscal galés con el vasco. Este trabajo de investigación busca profundizar en la distribución de los ingresos y gastos tributarios teniendo en cuenta las desigualdades internas existentes en Reino Unido. Esto permite analizar las fortalezas y debilidades de los dos modelos diferentes, y comprender el desarrollo del ejercicio de su soberanía nacional.

PALABRAS CLAVE: Concierto Económico, Gales, federalismo fiscal, finanzas públicas

Sumario:

1. Sarrera. 2. Gales eta EAEren Autonomiaren deszentralizazio prozesua. 3. EAE eta Galesko tributu-sistemak deszentralizazio fiskalaren eredu. 4. Tributu itunduak eta deszentralizatuak. 5. Ondorioak. 6. Informazio iturriak eta bibliografia

1. Sarrera

Lan honen helburua Galesko tributu-sistemaren desberdintasunetan sakontzea da, fiskalitate eredu deszentralizatu gisa, euskal ereduaren aurrean.

Egiaztatu da Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) fiskalitatea, Ekonomia Itunaren sistemarengatik, oso garrantzitsua dela Galesentzat, izan ere, Galesko Gobernuak eta herrialdeko alderdi politiko ezberdinek bultzatutako deszentralizazio-prozesuan atea irekitzen dielako EAEko sistema ulertzeak eta EAEko bezalako eredu alternatiboak eztabaidatzen ari dira, Galesentzako independentzia fiskal handiagoa ahalbidetuko luketenak. Hala ere, horrek erreforma sakonak eskatuko lituzke Erresuma Batuko sisteman. Ia aho batez Galesko alderdi politikoek uste dute Galesek Erresuma Batuko Gobernuarengandik finantzazio gehiago behar duela, eta hori tributu-arloan eskumen gehiago eskuratuz lortzen dela.

Era berean, ez da ahaztu behar Galesen egoera ekonomikoa aldatuz joan dela oraintsuko historian, Britainia Handiko motorra izatetik Erresuma Batuko lurralde txiroena izatera pasatuz. Gaur egungo biztanleria ere oso zahartuta dago eta gazte gehienak gertuko tokietara joaten dira, lan eta etorkizun aukera hobeak izan ditzaketen tokietara. Gainera, Londresko hiri handiak eskaintzen duen alternatibak jende asko konbentzitu du Galesko lurraldea utzi eta Hiri handira joateko.

Faktore horiek kontuan hartzen ditu Galesko Administrazioak bere politika publikoak inplementatzeko orduan, eta horretarako funtsezko ardatza zerga-politikak dira[1].

[1] Ikusi ondoko dokumentuak: *Empowerment and responsibility: devolving financial powers to Wales* https://assets.publishing.service.gov.uk/media/5a7b9a17e5274a7318b8fbab/empowerment_and_responsibility_181113.pdf (azken bisita 2024ko azaroak 25ean).
Empowerment and Responsibility: Legislative Powers to Strengthen Wales
https://assets.publishing.service.gov.uk/media/5a7ea41340f0b62305b823d0/CDW-Wales_Report-final_Full_WEB_310114.pdf (azken bisita 2024ko azaroak 25ean).
Barnett Squeezed? Options for a Funding Floor after Tax Devolution
https://www.cardiff.ac.uk/__data/assets/pdf_file/0007/1288276/161209-WGC-IFS-2nd-Report-Barnett-Squeezed.pdf (azken bisita 2024ko azaroak 25ean).
Fair Funding for Taxing Times? Assessing the Fiscal Framework Agreement
https://www.cardiff.ac.uk/__data/assets/pdf_file/0008/1287233/Fair-Funding-for-Taxing-Times-Assessing-the-Fiscal-Framework-Agreement.pdf (azken bisita 2024ko azaroak 25ean).
For Wales Don't (Always) See Scotland: Adjusting the Welsh Block Grant after Tax Devolution
https://www.cardiff.ac.uk/__data/assets/pdf_file/0008/1288295/WGC-IFS-Report-Oct-2016.pdf
Independent Commission on the Constitutional Future of Wales: final report
https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2024-07/independent-commission-on-the-constitutional-future-of-wales-final-report.pdf (azken bisita 2024ko azaroak 25ean).

Horregatik guztiagatik, Galesetik Euskal Herriko egoera ekonomiko, zerga- eta finantza-egoera zeharka eta miresmenez ikusten da, eta Ekonomia Itunaren sistema jartzen da adibide gisa, jarraitu eta ezarri beharreko eredu gisa, nahiz eta, zoritxarrez, sistemaren ezarpena urrun egon, Erresuma Batuko Gobernu zentralak aurrera eramandako politika zentralisten ondorioz.

Ez da ahaztu behar Brexit-ak, maila ekonomiko eta sozialean izan dituen ondorioez gain, ezinegona eta mesfidantza sortu dituela Londrestik egiten diren promesekiko. Zentzu horretan, epe laburrera zerga-paradigma berri baterantz aurrera egitea ez da bideragarria, Erresuma Batuaren politika nahasia kontuan hartuta.

2019an, EAE Britainiar Uharteetako eta Ipar Irlandako Zerga Agintaritzen Forum-era gonbidatu zuten[2], Cardiffen antolatua, Ekonomia Itunari esker EAEn dugun finantzaketa-eredua argitzeko asmoz. Euskal ereduak interesa piztu izan du Galesko herrialdean, zerga eta finantza arloan pisua irabazteko interesa dagoelako.

Orain dela urte gutxi batzuetatik hona beraien zerga batzuk biltzen dituzte eta Erresuma Batuarekin aldebiko harreman eredu batera aurrera egiten saiatzen ari dira, non, gainera, beren helburuak bete nahi dituzten, baliabide publikoak lortuz eta gastu publikoaren jardueran sartzen diren behar kolektiboei esleituz.

Hori dela eta, eta 2023 eta 2024ko uztailean Galeseko hainbat pertsona publiko eta adituei egindako elkarrizketetatik abiatuta, Galesko tributu-sistemari buruzko galdera zehatzak eginez[3], bi ereduen arteko ezberdintasunen azterketa juridikoa egin nahi da lan honetan, sistema biak guztiz antagonikoak direla edota ez ondorioztatu ahal izateko, baina herrialdeen autonomia fiskala handitzen jarraitzeko aukerarekin.

Horretarako, eta lan honi modu zehatz eta egituratuan heltzeko, lehenik eta behin, bi sistemek dituzten ezaugarriak aztertuko dira, hala nola egoera ekonomiko eta juridikoa, elementu makroekonomikoak, duten zerga-gaitasuna, tributu-sistemen irismen juridikoa eta bi eskualdeen finantzaketa-sistema, Barnett Formula eta euskal kupoaren determinazioa eta aldebakarreko arrisku printzipioa azpimarratuz. Azkenik, ibilbide analitiko hau osatu ondoren, egindako azterketatik lortutako ondorioak aurkeztuko dira, ohar nagusiak laburtuz eta galestar herriaren sentimendu orokorrarekin bat datorren tributu-sistema deszentralizatuago bat diseinatzen lagun dezaketen proposamenak aurkeztuz.

---

[2] https://www.deia.eus/economia/2019/05/16/gales-interesa-fiscalidad-vasca-concierto-4782481.html (azken bisita 2024ko abenduak 10ean).

[3] Planteatutako galderek Galesko tributu-sistemak nola funtzionatzen duen eta Euskal Ekonomia Itunaren ereduarekin duen harremana argitzea izan dute helburu. Honako galderetatik abiatu izan da ikerketa lan hau. Lehenik eta behin, Nola funtzionatzen du Galesko tributu-sistemak? Gales fiskalitateari dagokionez autonomoa al da? Zein puntutaraino? Azalduko al duzue zure funtzionamendua? Gai horiei esker, Galeseko finantza-autogestioaren egitura eta maila ulertu ahal izango dira. Euskal sistemarekiko interesa ere aztertzen da, besteak beste: Zergatik Gales Ekonomia Itunaren sisteman dago interesatuta? EAEko sistemaren zein alderdi erakargarriak dira? Gainera, balizko ezarpen bati lotutako erronkak identifikatu nahi dira, honako hauen bidez: Zer zailtasun ikusten dituzue sistema honen aplikazioan? Zer abantaila ikusten dituzte? Sistemaren ezarpena posible dela uste duzue? Zergatik?
Beste galdera-multzo batek testuinguru zabalagoko gaiak jorratzen ditu, hala nola kanpoko faktoreen inpaktua eta eredu horren etorkizuneko pertzepzioa. Zentzu horretan, hainbat galdera planteatzen dira: Nola ikusten duzue Ekonomia Itunaren etorkizuna? *Brexit*-ak deszentralizazio fiskalari eragiten al dio? Azkenik, eztabaida-esparru komun bat errazteko, galdetzen da: Zer ulertzen duzue tributu-sistema autonomo batez?
Galdera horiei esker, Galesko tributu-sistemaren berezitasunetan sakontzeaz gain, euskal sistemarekin alderaketa-azterketa bat sustatu nahi izan da, deszentralizazio fiskalari buruzko eztabaida eta Europako hainbat testuingurutan izan daitezkeen egokitzapenak aberastuz

2. Gales eta EAEren Autonomiaren deszentralizazio prozesua

Aipatzekoa da Galesen eta EAEn bizi izandako deszentralizazio egoerak ezberdinak izan arren, bietan sortutako prozesua herritarren gehiengoaren nahietan oinarritua izan dela.

Gales Erresuma Batuko herrialde-nazioa da eta 3 milioi biztanle inguru ditu, 20.779 km^2-ko azalera duelarik. 1999az geroztik, autonomia erlatiboa du, Westminsterreko Parlamentuak[4] eskualdatutako eskumenak kontrolatu eta kudeatzeko aukera ematen diona.

Common Law Erresuma Batuan eta tradizio anglosaxoia duten herrialde gehienetan indarrean dagoen sistema juridikoa da. Lege-sistema horretan, batez ere, auzitegiek hartzen dituzte erabakiak, Zuzenbide Zibileko sistemekin (edo tradizio erromatar-germaniarrarekin) kontrastean, gurea bezala, Zuzenbidearen iturri nagusia Legea baita. Erresuma Batuak idatzizko konstituziorik ez izateak esan nahi du arauen aldaketak azkarragoak izan daitezkeela, baina baita ezegonkorragoak ere, Westminsterreko parlamentarien borondate politikoaren mende daudelako.

Galesera eskumenak itzultzeari buruzko eztabaida 1979ko erreferendumean hasi bazen ere, 1997ra arte ez zen berriz gaiari buruz hitz egin, Alderdi Laboristak *Downing Street*eko boterera iritsi eta Erresuma Batuko sistema politiko-konstituzionala erreformatzeko programa handinahia martxan jarri zuenerarte, besteak beste, Galesi eskumen administratiboak eta politikoak itzultzeko.

White Paper[5] "*A Voice for Wales*" dokumentuaren bidez, Galesko Asanblea Nazionala[6] sortu eta 1997ko iraileko erreferendumak berretsitako itzulketa prozesuaren proposamena aurkeztu zen. Ondoren, 1998ko *Government of Wales Act*-aren bidez[7], egitura instituzional bat eratu zen, mendeko legediaren eskumenak zituena[8], hau da, Westminsterreko Parlamentuaren esku, baina Komunen Ganberan egiten ziren Galesen aurrekontuari buruzko eztabaida Senedd-era eraman ahal zena[9].

Itzulketa prozesuak, baita ere, ordurarte, ezkutuan egondako Galesko nazionalitate izaera eta bere diferentziazko egitatea azalaraztea ekarri zuen, besteak beste, *Plaid Cymru*[10] alderdi abertzaleak egindako lanari esker. Egoera horretan, Galesko parlamentuak botere legegile eta eskumen handiagoak eskatzea

---

[4] Erresuma Batuko parlamentua bi ganberaz osatua dago: Lorden Ganbera eta Komunen Ganbera. Ikusi https://www.parliament.uk/about/living-heritage/building/palace/ (azken bisita 2025eko urtarrilak 11n).

[5] *White Papers*-ak Gobernuak egindako politika-dokumentuak dira, eta etorkizuneko legeetarako proposamenak azaltzen dira. Askotan *Command Papers* bezala argitaratzen dira eta planifikatzen ari den lege-proiektu baten zirriborro bat jasotzen dute. Dokumentu horiek talde interesdunekin edo ukitutako taldeekin kontsulta eta eztabaida gehigarriak egiteko oinarri gisa balio dute, eta horrek azken aldaketak egiteko aukera ematen du, lege-proiektu bat Legebiltzarrari formalki aurkeztu baino lehen.

[6] Galesko Parlamentua da Galesen eta bere biztanleriaren interesak ordezkatzen dituen organo demokratikoki hautatua. Senedd izenaz ezagutzen da, Galeserako lege-erakunde honek galestar zergak onartzen ditu eta Galesko Gobernua gainbegiratzen du.

[7] Ikusi https://www.legislation.gov.uk/ukpga/1998/38/contents (azken bisita 2024ko abenduak 12).

[8] Galesko Gobernuak menpeko legeriaren eskumenak izango ditu honako arlo hauetan: (1) nekazaritza, arrantza, basoak eta landa-garapena; (2) monumentu eta eraikin historikoak; (3) kultura; (4) garapen ekonomikoa; (5) hezkuntza eta prestakuntza; (6) ingurumena; (7) suteak eta suteen aurkako babesa erreskatatzeko eta sustatzeko zerbitzuak; (8) elikadura; (9) osasuna eta osasun-zerbitzuak; (10) autobideak eta garraioak; (11) etxebizitza; (12) tokiko gobernua; (13) Galesko Batzar Nazionala; (14) administrazio publikoa; (15) gizarte-zerbitzuak; (16) kirola eta aisialdia; (17) turismoa; (18) hirigintza eta landa-plangintza; (19) ura eta uholdeen prebentzioa; (20) galesera.

[9] Ikusi OLIVERAS, N. (1999). *La "devolution" en el Reino Unido: Gales, Escocia e Irlanda del Norte*. Fundació Carles Pí i Sunyer d´Estudis Autonómics i Locals, Bartzelona.

[10] Galesko alderdi politiko independentista da, 1925ean sortua. Ikusi https://www.partyof.wales/ (azken bisita 2024ko abenduak 17an).

ekarri zuen "*The Richard Comission*" -aren bidez[11]. Horrela, 2004an publikatutako gomendioek ondokoa eskatzen zuten:

> "*• Galesko parlamentua Westminsterrek erreserbatu gabeko gai guztien gaineko eskumen osoak (primary legislative powers) dituen Biltzar legegile bihurtzea.*
>
> *• Erakunde-eredu berri bat ezartzea, funtzio betearazlea eta legegilea argi eta garbi bereizi ahal izateko.*
>
> *• Parlamentuko kideen kopurua 60tik 80ra igotzea, lehen mailako legerian lan-kargen eskaera berriei erantzuteko. Bereziki, Galesko Asanbleako Gobernuaren legegintza-programaren kontrola*"[12].

Prozesua Erresuma Batuko parlamentuak *Government of Wales Act* 2006 onartzearekin amaitu zen. Horren berritasun nagusia, 1998koaren aldean, Galesko *Senedd*-ak parlamentu baten berezko eskumenak eskuratzeko erreformak eta prozedurak ezartzea zelarik. 2011ko martxoko erreferendumaren ostean, parlamentuak 1998an itzulitako gaiei buruzko legeak egin ditzake Galeserako, 2006ko *Government of Wales Act* delakoan aldaketarik gabe mantendu zirenak.

Ordutik hona, esparru juridiko berriaren arabera, botere betearazlea Galesko Gobernuari dagokio (*Welsh Assembly Government*), lehen ministro batekin (*First Minister*) eta ministroen kontseilu batekin eta botere legegilea, berriz, Galesko parlamentuari (*Senedd*), 60 diputatuz osatua.

EAEren kasuan, berau, Espainiar Estatuko autonomia-erkidegoa da 1979tik hona. 2,2 milioi biztanle inguru ditu eta 7.234 km^2.

Espainiar Estatuko sektore publikoa hiru gobernu-mailatan egituratu izan da tradizionalki: Estatua, probintzia eta udalerria. Hala ere, 1978ko konstituzio-sistema ezartzearekin batera, maila gehigarri bat sartu zen Estatuaren eta toki-erakundeen artean: autonomia-erkidegoak. Aldaketa hori Konstituzioaren 2. artikuluan ezarritako autonomia-printzipioaren ondorio da, honek Espainiako nazioa osatzen duten nazionalitateen eta eskualdeen autonomia-eskubidea bermatzen baitu.

Horrela, "lurralde-dimentsio"[13] berri bat sortuko da Estatuan, autonomia-erkidegoek ordezkatua, berezko eskumenak, bereganatutako arloetan arautzeko gaitasuna eta ordezkaritza-organoak dituztelarik. Harrezkero, erakunde horiek Administrazio Zentralarekin batera egon dira, eta, horretarako, eskumenak banatu behar izan dira, baliabideak esleitu behar izan dira horiek finantzatzeko, eta konpentsazio-mekanismoak sortu behar izan dira, sisteman ekitatea eta finantza-nahikotasuna bermatzeko. Hori horrela, Estatu mailan, hasieratik, alde handiak ezarri ziren autonomia-erkidegoen artean, finantzaketaren ikuspegitik bereizita, araubide komuneko erkidegoetan (guztiak Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa izan ezik) eta foru-araubideko erkidegoetan (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa). Bereizketa hori Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarrian oinarritua da legez, honako hau ezartzen baitu: "Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo da"[14].

---

[11] Batzordearen helburua zen Senedd-aren eskumenak eta hauteskunde-araubidea aztertzea eta ondorioak txosten independente batean jasotzea. Txostenak *Senedd*-aren etorkizunari eta Gales gobernatzeko moduari buruzko erabakiak hartzen lagundu nahi zuen.

[12] NATIONAL ASSEMBLY FOR WALES (NAW). (2004). *Report of the Richard Commission*. Cardiff: Commission on the Powers and Electoral Arrangements. Ikusi https://researchbriefings.files.parliament.uk/documents/SN03018/SN03018.pdf (azken bisita 2024ko abenduak 18an).

[13] AGUIRRE DE LA HOZ, J. (1980). *Ley Orgánica de Financiación de las Comunidades Autónomas*, Presidencia del Gobierno. Secretaría General Técnica. Subdirección General de Documentación, Madril, 7.orrialdea.

[14] Ikusi, besteak beste, HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. (1998). *Derechos Históricos y Constitución*, Taurus; eta PORRES AZKONA, J. (1992). *Política y Derecho. Los Derechos Históricos vascos*. IVAP.

Modu horretan, EAEren antolamendu eta funtzionamendurako esparru juridikoa ezartzen duen oinarrizko arau instituzionala, Gernikako Estatutua ere esaten zaiona, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa da[15]. Nabarmentzekoak dira, halaber, azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa (Lurralde Historikoen Legea)[16], apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa[17], eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena[18].

Aurrerago ikusiko dugun moduan, bai Galesek zein EAEk tributu sistema propioa dute eta beraien arteko ezberdintasunak azaltzen saiatuko naiz, jakiteko ea Ekonomia Itunaren sistema Galesen ezartzeko modukoa den galderari erantzuteko.

3. EAE eta Galesko tributu-sistemak deszentralizazio fiskalaren eredu

Tributuen deszentralizazioaren helburu nagusia da Gobernu zentraletatik dauden azpi administrazio-erakundeek baliabide nahikoak izatea esleitu zaizkien funtzioak betetzeko, eta herritarren aurrean fiskalitateari dagokionez arduratsuak izan daitezen lortzea[19]. Deszentralizazioaren fenomenoa berria ez bada ere, Espainian oso modu nabarmenean egin du aurrera azken hiru hamarkadetan, batez ere tributu esparruan, adibiderik aipagarriena euskal ogasunena delarik[20].

Ikuspegi juridikotik, aurrerago aipatu dudan bezala, Konstituzioak bide eman dio Estatuan administrazio-antolaketa berri bati, non autonomia-erkidegoak agertuko baitira, eta, horregatik, araudi guztia egoera berrira egokituko da pixkanaka. Gainera, "esan behar da herritarrak nahiago duela berari eragiten dioten erabaki publikoak bera bizi den ingurune beretik hartzea, dela tokiko edo eskualdeko ingurune horretatik, eta ez erabaki horiek ingurune horretatik urrun dagoen agintari batek hartzea[21]".

Kontuan hartu behar da herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak direla herritarrek zerbitzu publiko bat emateko edo arazoari irtenbidea emateko eskatzen duten lehen erakundea. Are gehiago, Europar Zuzenbide erkidetik eratorritako beste printzipio bat aipatu behar da, kasu honetan aplikatzekoa

---

[15] Espainia. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena, 1979ko abenduaren 22ko EAOn argitaratua, 306. zenbakian.

[16] EAE. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa, 1983ko abenduaren 10eko *EHAA*n argitaratua, 182. zenbakian.

[17] EAE. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeena, 2016ko apirilaren 14ko *EHAA*n argitaratua, 70. zenbakian.

[18] Espainia. 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena, 2022ko maiatzaren 24ko *EAO*n argitaratua, 124. zenbakian.

[19] LAGO PEÑAS, S. eta MARTÏNEZ VÁZQUEZ, J. (2010). "La descentralización tributaria en las Comunidades Autónomas de régimen común un proceso inacabado", *Hacienda Pública Española*, 192 zbk, 129-151. orrialdeak.

[20] Ekonomia Ituna EAEko erakunderik nabarmenetakoa eta adierazgarrienetako bat da gaur egun, eskubide historikoetako bat izateaz gain. Eskubide hori 1978ko Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriak eta Gernikako Estatutuaren 41. artikuluak babesten dute, zeinak ezartzen baitu Estatuaren eta EAEren arteko zerga-harremanak (eta finantza-harremanak) Ekonomia Itunaren edo Hitzarmenen foru-sistema tradizionalaren bidez arautzen direla. Eredu berezi horrek gobernu zentralaren babesa du, sistema horri eusten dion itunaren arabera. Aldebiko harreman horrek EAEren finantza-autonomia sendotzeaz gain, Espainiako konstituzio-esparruaren barruan duen berezitasun historikoa errespetatzen duen lankidetza-eredu bat ere islatzen du, aldi berean Estatuaren kohesioa eta egonkortasuna bermatuz.
Sistema honen bidez, Estatuaren eta EAEren arteko tributuak ituntzen dira, eta EAEk bere gain hartu ez dituen kargak finantzatzen dira, hau da, Estatuak autonomia-erkidego horretan dituen eskumenak. EAEk, bere erakundeen bidez, kasu honetan foru-aldundien bidez, biltzen ditu zerga horiek, Estatuak prozesu horretan parte hartu gabe.

[21] ALBI, E. (1978). "El Federalismo fiscal", *Hacienda Pública Española*, Instituto de Estudios Fiscales, 51. zbk, Madril, 43-44. orrialdeak.

dena: subsidiariotasun-printzipioa[22]. Horrela, esan daiteke subsidiariotasun-printzipioa mekanismo bat dela, Europako integrazio-prozesuari aplikatzen zaiona, Estatu kideetako agintarien esku-hartzea mugatzeko eta Estatuak beraiek bakarrik eraginkorrak izan ezin daitezkeen kasuetarako.

Galesko deszentralizazio fiskala, bere aldetik, nahiko prozesu berria da, eta hauskortzat jotzen da Erresuma Batuko Gobernu eta parlamentuaren borondatearen mende dagoelako. Galesko Gobernuak zenbait zerga kudeatzeko ahalmena badu ere, autonomia hori Erresuma Batuak duen leheneratzeko etengabeko erabaki arriskuak mugatzen du, eta horrek eragin negatiboa izan dezake Galesen finantzetan. Egoera horrek agerian uzten du Galesko tributu-sistemak, deszentralizatua bada ere, oraindik erronka nabarmenak dituela erabat sendotzeko.

Galesko Gobernuaren aurrekontu publikoa 25.000 milioi inguru liberakoa da, eta batez ere, Erresuma Batuko Gobernuaren dirulaguntza orokor baten bidez finantzatzen da *Block Grant* -Dirulaguntza Blokeaizenez ezaguna dena[23]. Finantzazio metodo hau 1978an ezarri zen Erresuma Batuan eta Barnett Formula bezala ezagutzen den metodoan oinarritzen da[24].

Metodo edo formula honek administrazio deszentralizatuen aurrekontuaren oinarria zehazten du eta kontuan hartzen du ere, arlo deszentralizatuetako gastu publikoetan (osasuna, hezkuntza, garraioa, etab.) aldaketak gertatzen badira.

Galesko aurrekontuaren zatirik handiena Erresuma Batuko Gobernutik dator[25], Barnett formularen pean, eta biztanlerian eta behar erlatiboetan oinarrituta kalkulatzen ditu transferentzia horiek. Formula honen bidez, Erresuma Batuak Galesko Gobernuari urtero eman behar dion kantitatea kontuan hartzen da (oinarria) eta horrek aldaketak izan ditzake hurrengo urteetan, batetik, Barnett Formulak berak aurreikusten duelako aldaketa batzuk gertatzea eta bestetik, Galesko ogasunak[26] biltzen dituen zergetako diru kopuruetan ere aldaketak badaude, Ingalaterrako eta Ipar Irlandako zerga bilketarekin alderatuta, horrek ere Galesek jasoko duen diru kantitatean eragin zuzena du.

Hori horrela, urtero Galesko administrazioari esleitutako finantzaketa, Barnett formula eta Dirulaguntza blokeak izan ditzakeen aldaketen bidez kalkulatzen da. Gainera, Galesko Gobernuak duen aurrezteko ahalmena mugatua da, 300 milioi liberako erreserba-mugarekin, eta zorpetze-politika Westminsterrek kontrolatzen du zorrotz, eta horrek mugatu egiten du azpiegituretan edo garapen-proiektuetan inbertitzea.

A) Barnett Formula hiru faktoreen arabera kalkulatzen da[27]:

1. faktorea: Erresuma Batuko Gobernuaren gastuen aldaketa.

Honen arabera, Ingalaterran edo Erresuma Batuko beste eskualdeetan aplikatzen den programa edo politika baten gastu osoaren aldaketa kontuan hartzen da. Adibidez, Galesen eskumeneko arlo batean Erresuma Batuko Gobernuak Ingalaterran diru kantitate gehiago jartzen badu, hori kontuan hartzen

[22] Subsidiariotasun-printzipioaren formulaziorik ezagunena Pio XI .a Aita Santuak "*Quadragesimo Anno*" entziklikan egin zuena da, honela laburbil dezakeelarik: "gizakiek edo komunitate txikiago batek beren kabuz egin dezaketena ez da gizarte handiago edo handiago batek bere gain hartu behar".

[23] Ipar Irlanda eta Eskoziaaren finantzaketarako ere formula berdina erabiltzen da.

[24] Joel Barnett (1923 – 2014) Alderdi Laboristako politikaria izan zen. 1970eko hamarkadaren amaieran, Altxorraren idazkari buru gisa, Barnett Formula asmatu zuen, Eskozia, Gales eta Ipar Irlandako gastu publikoa esleitzen duena.

[25] Hala ere, Galesko gastu publikoaren erdia, gutxi gorabehera, Erresuma Batuko gobernuak egiten du zuzenean; gainerakoa, berriz, Galesko Gobernuak erabakitzen du nola gastatu. Hala ere, finantzaketa egiteko moduak ez du kontuan hartzen Galesko pobrezia erlatiboa. Per capita gastua handiagoa delako Londresen, Erresuma Batuko zatirik oparoenean.

[26] *Welsh Revenue Authority* (Galesko Zerga Agintaritza) Galesen deszentralizatutako zergak biltzeaz eta administratzeaz arduratzen den erakundea da. Ikusi https://www.gov.wales/welsh-revenue-authority (azken bisita 2025eko urtarrilak 11n).

[27] *Barnett Formula= Change in English Spending x Comparabiliyty factor x Welsh population as a % of England.*

da Galesek diru gehiago izateko. Baita ere, alderantziz, dirua gutxitzen badu, Galesek ere diru gutxiago izango luke.

2. faktorea: Alderagarritasuna.

Hau ehuneko bat da, eta programa edo gastu arlo bat Galesen zenbateraino dagoen deszentralizatuta adierazten du:

%0: erabat zentralizatuta dago (Erresuma Batuko Gobernuaren eskumenekoa).

%100: guztiz deszentralizatuta dago.

3. faktorea: Biztanleriaren proportzioa.

Galesko biztanleria Erresuma Batuko biztanleria osoaren proportzioaren arabera kalkulatzen da.

Adibide bat jartzearren, Erresuma Batuko Gobernuak osasun-gastua (guztiz deszentralizatua dagoen arloa) 100£ milioitan igotzen badu, Galesek biztanleria osoaren %5 ordezkatzen badu eta osasun arloaren alderagarritasun faktorea %100 bada, egoera horretan, Galesek jasoko luken kantitatea 5£ milioikoa litzateke.

B) Dirulaguntza blokearen doikuntza aldaketak

Galesera transferituta dauden zergek, Ingalaterran biltzen diren kantitatearekin alderatuz, aldaketak badaude, honek ere eragina du Galesek jasoko duen dirulaguntzan. Adibide bat ematearren, 2023. ekitaldian, Galesen errentaren gaineko zergaren diru-sarrerak 100 milioikoak izan baziren, eta 2024an 110 milioira igo baziren; horrek esan nahi du errentaren gaineko zergaren diru-sarrerak % 10 igo zirela aldi horretan eta %10 hori Galesi ematen zaio urtean zehar jasoko duen Dirulaguntza blokean[28].

Galesko Gobernuak 2025-2026rako aurrekontu proposamenaren arabera, Dirulaguntza Blokea 21.000 milioi libera esterlina izango dira (aurrekontu osoko diru sarreren %80,1 da) eta beste ia 5.000 milioi libera esterlina Galesek berak kudeatzen dituen zergetatik eratorriko dira (aurrekontu osoko diru sarreren %19,9)[29].

Modu horretan, esan genezake, finantzazio sistema honek antzekotasun handiak dituela Espainiako lurralde erkideko autonomia-erkidegoetako finantzazioarekin[30], izan ere, finantzaketa-sistema Gobernu

[28] "Argitalpenak Galesko errentaren gaineko zergaren diru-sarrera moten zifrak eta Erresuma Batuko gainerako herrialdeen errentaren gaineko zergaren diru-sarrera baliokideak ematen ditu, Galesko Gobernuaren errentaren gaineko zergaren dirulaguntza osoaren doikuntza kalkulatzeko erabiltzen direnak, Galesko eta Erresuma Batuko gobernuek adostutako zerga-esparruan ezartzen den bezala. Horri esker, Galesko Gobernuaren 2025-2026rako aurrekontuari aplikatu beharreko errentaren gaineko zergaren kontziliazioa kalkula daiteke. Kontziliazioa zerga-esparruaren funtzionamenduaren zati normala da, eta Galesko Gobernuaren finantzaketa errentaren gaineko zergaren diru-sarrera errealetan oinarritzea bermatzen du, aurreikuspenetan oinarritu beharrean. Kontziliazioa kalkulatzeko, aurreikusitako zifrak eta Galesko errentaren gaineko zergaren diru-sarreren tasei eta 2022-2023 urterako dirulaguntza blokean egokitzeari dagozkien emaitzen zifrak alderatu behar dira. Aurreikuspenen eta emaitzen arteko aldea Galesko Gobernuaren 2025-2026ko aurrekontuari eta finantzaketari aplikatzen zaio". Ikusi https://www.gov.wales/welsh-rates-of-income-tax-reconciliation-2022-to-2023-joint-technical-note-by-wg-and-hmt-html (azken bisita 2024ko abenduak 17an).

[29] Ikusi https://www.gov.wales/draft-budget-2025-2026 (azken bisita 2024ko abenduak 17an).

[30] Horrenbestez, gaur egun, autonomia-erkidego bakoitzak jasotzen dituen finantza-baliabideak abenduaren 18ko 22/2009 Legean, (araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duena eta zenbait zerga-arau aldatzen dituena) ezarritako adierazle edo aldagai batzuen arabera kalkulatzen dira. Hona hemen baliabide horiek guztiak:

a) Estatuak osorik edo zati batean lagatako zergak

zentralak autonomia-erkidegoei eta autonomia-estatutua duten hiriei egindako transferentzietan oinarrituta dago, eta aurreikuspenaren benetako kostuaren metodoa da abiapuntua. Sistema horren bidez, "autonomia-erkidego bakoitzak transferentziak jasotzen zituen, Gobernu zentralak autonomia-erkidego horretan transferitzen ziren eskumenetan gastatzen zenaren parekoak, gutxi gorabehera"[31].

EAEren kasuan, aldiz, sistema guztiz ezberdina da. Izan ere, Ekonomia Itunaren bidez, tributuen gaineko eskumenak Lurralde Historikoen artean banatzen dira eta hauek ordainaraztea (exijitu eta kobratzea) Lurralde Historiko bakoitzari dagokio (Foru Aldundiei), eta ezartzea eta zerga-araubidea Batzar Nagusiei[32]. Modu honetan, EAEko administrazioek jasotzen duten diru sarrera ia guztiak (Espainiako Gobernutik zein Europar Batasunetik eratorri daitezkeen transferentziak salbu) Ekonomia Itunean itundutako tributuetatik eratortzen dira.

Sistema honen bidez, Estatuaren eta EAEren arteko tributuak ituntzen dira, Foru Aldundiek tributu horiek biltzen dituzte Estatuak prozesu horretan parte hartu gabe, eta EAEk bere gain hartu ez dituen kargak finantzatzen dira, hau da, Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu ez dizkion eskumenak ordaintzeko. Horren ordainetan, Estatuak, EAEn dituen eskumenengatik, kupoa izeneko kopuru bat jasotzen du EAEren aldetik, honek Estatuko Barne Produktu Gordinarekiko duen pisu erlatiboa kontuan hartuta kalkulatzen dena. Kopuru hori, gaur egun eta 1981etik, egozpen-indizea, hau da, ehuneko hori, %6,24koa da[33]. LÁMBARRI eta LARREAk adierazi dute "bereganatu gabeko karga orokorretarako ekarpena ez dela egiten bildutako diru-sarreren arabera, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko aldagai batzuen arabera egiten dela: eskumen horietarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako gastuen arabera"[34].

Beraz, Ekonomia Itunaren sistema, Galeskoarekin alderatuta, guztiz kontrakoa da. Izan ere, EAEk berak biltzen ditu tributu guztiak eta diru sarrera horiek erabiltzen ditu bere eskumenak finantzatzeko eta dagokion kupoa ordaintzeko. Aldiz, Galesko Gobernuak Erresuma Batutik jasotzen du bere aurrekontuetako sarreren %80a eta beste %20a berak kudeatzen dituen zergetatik eratortzen da, ikusiko dugun moduan, horko zati bat Galesko Ogasunak zuzenean zergadunengandik bilduz eta beste zati bat Erresuma Batuko *Her Majesty's Revenue and Customs* (aurrerantzean, HMRC) [35]k bilduz eta ondoren, diru hori Galesko Gobernuari itzuliz.

4. Tributu itunduak eta deszentralizatuak

Deszentralizazio fiskala gertatzeko eta zerga-federalismoan aurrera egiteko, diru bilketari dagokionez behintzat, munduko herrialde gehienetan konfigurazio nazionaleko tributuak eta tributu partekatuak aurki daitezke, garrantzitsuagoak direlarik normalean konfigurazio nazionalekoak diru sarrera bilketari

b) Estatuaren diru-sarreretan duen partaidetza
c) Estatuko zergen gaineko errekarguak
d) Autonomia-erkidegoen berezko zergak, tasak eta kontribuzio bereziak.
e) Lurralde arteko Konpentsazio Funts baten transferentziak eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargurako beste esleipen batzuk
f) Autonomia-erkidegoen ondaretik eta zuzenbide pribatuko diru-sarreretatik datozen etekinak
g) Kreditu-eragiketen emaitza

[31] ZUBIRI ORIA, I. (2000). *El sistema del Concierto Económico en el contexto de la Unión Europea*, Círculo de Empresarios Vascos, 69. orrialdea.

[32] Ikusi DE LA HUCHA CELADOR, F. (2006). *El régimen jurídico del Concierto Económico*, Ad Concordiam.

[33] Abiaburu den urteko kupoaren kalkulua Euskal Autonomia Erkidegoko kupoa 2022-2026 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzen duen apirilaren 3ko 10/2023 Legean arautzen da.

[34] LÁMBARRI GÓMEZ, C. eta LARREA JIMÉNEZ DE VICUÑA, J.L. (1995). *El Concierto Económico*, IVAP. 40-41.

[35] HMRC Erresuma Batuko zerga agintaritza da. Ikusi: https://www.gov.uk/government/organisations/hm-revenue-customs (azken bisita 2025eko urtarrilak 5ean).

dagokionez. Gainera, gerta daiteke homogeneotasun handia egotea araudi eta kudeaketaren ikuspegitik eta hau bateragarria izatea tributu aniztasunarekin[36].

Egoera hau gertatzen da Galesen ere berak zerga batzuk kudeatzeko gaitasuna duelako, baina gehienak Erresuma Batuko Gobernuaren esku daude. Galesen, finantza-erabakiak Erresuma Batuko Altxorrean zentralizatuta daude, eta horrek zaildu egiten du epe luzerako plangintza estrategikoa. Egoera horrek mendekotasun politiko handia sortzen du Erresuma Batuko Gobernuak hartutako erabakiekiko, Liz Truss, Erresuma Batuko lehen ministroak (2022 iraila eta urria bitartekoa), bultzatutako errentaren gaineko zergaren aldaketarekin agerian geratu zen bezala[37].

Gainera, Westminsterren edo Whitehalleko[38] funtzionarioek hartutako erabaki politikoek Galesi kalte egiteko arriskua dago. Era berean, Galesko tributu-sistemaren deszentralizazio handiagoa lortzeko aurrerabidea Westminsterreko gobernuaren borondatearen mende dago zuzenean.

2014ko eta 2017ko Galesko Finantza Legeek Galesko Gobernuari eta Galesko Senedd-ari eskumen fiskalak eta finantzarioak eskuordetzeko urrats garrantzitsuak izan ziren. Bi lege hauek Galesen autogobernua indartu zuten, zerga batzuekiko eta zorpetzeko ahalmenekiko kontrol handiagoa emanez.

Modu horretan, Galesek zuzenean kudeatzen[39] dituen zerga bakarrak higiezinen transakzioei buruzko zerga (aurrerantzean, LTT)[40] eta Isurketen gaineko zerga (aurrerantzean, LDT)[41] dira.

Bi zerga horien diru-bilketa ez da proportzio esanguratsua Galesko Gobernuaren aurrekontu osoan, baina biak dira garrantzitsuak zerbitzu publikoak finantzatzeko eta deszentralizazio prozesuan urratsak ematen jarraitzeko. LTDaren diru-bilketa hondakinak murriztea eta birziklatzea sustatzen duten ingurumen-politiketara bideratuta dagoen bitartean, LTTa higiezinen merkatuarekin lotuta dago, eta bere errendimendu ekonomikoa etxebizitzaren merkatuaren baldintzen arabera aldatzen da, hala nola, prezioa eta transakzioen bolumena kontuan hartuta.

Errentaren gaineko Zergari dagokionez, esan beharra dago, zerga honen karga tasa ezberdinen zehaztapen zati bat deszentralizatuta dagoen bitartean, beste zatia, Erresuma Batuko Gobernuaren esku dagoela. Gainera, zerga osoaren bilketaren eskumena HMRCri dagokio, nahiz eta gero Galesi transferitu berari dagokion zatiko diru-kantitatea.

2019ko apirilean, Erresuma Batuko Gobernuak Galesko zergadunek ordaintzen dituzten errentaren gaineko zergaren 3 tasak murriztu zituen, hiru zerga-tarteak mantenduz: oinarrizkoa, goikoa eta gehiga-

---

[36] UTRILLA DE LA HOZ, A. (2006). "Comparación internacional de los modelos de descentralización fiscal", *Mediterraneo Económico*, 10.zbk, 167-195.orrialdeak.

[37] https://es.euronews.com/2022/10/03/reino-unido-el-gobierno-de-liz-truss-renuncia-a-rebajar-el-impuesto-a-los-ricos (azken bisita 2024ko abenduak 19an).

[38] Whitehall Londresko erdialdeko kale eta gune enblematikoa da, Erresuma Batuko gobernu-bulego nagusietako asko hartzen dituelako ezaguna, eta termino generiko gisa erabiltzen da Erresuma Batuko Gobernuari erreferentzia egiteko, bereziki haren administrazio zentralari.

[39] Udalek "merkataritza-tasak"(*Business tax*) biltzen dituzte, tokiko zerbitzuak ordaintzen laguntzen duten zergak. Egoitzakoak ez diren jabetza gehienei aplikatzen zaizkien karguak dira, eta horien bilketa Galesko Gobernuari transferitzen zaio, honek, bidezko banaketa egin dezan udalerri guztien artean.

[40] *Land and Transaction Tax* (LTT) deitua ingelesez. Higiezinen transakzioen gaineko zergak (LTT) tasa eta banda desberdinak ditu, jabetza motaren arabera. Galesko ministroek zehazten dituzte, eta Galesko Parlamentuaren onespena behar dute.

[41] *Landfill Disposals Tax* (LDT) deitua ingelesez. Zabortegietako Xedapenen gaineko Zerga (LTD) zabortegietan utzitako hondakinen pisuan oinarritutako karga da. Zerga honek hiru tarifa mota ditu: 2017ko Zabortegiak Ezabatzeko Zergaren Legean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten materialentzako tasa murriztua, beste material batzuei aplika dakiekeen tarifa estandarra, eta baimendutako zabortegietatik kanpo egindako baimendu gabeko xedapenetarako tasa berezia.

rria[42]. Zergak ordaintzen hasi aurretik pertsonek irabaz dezaketen diru-kopurua (beren zerga-arintze pertsonala) Erresuma Batuko gainerako herrialdeetako berbera da, eta Errentaren gaineko Zergaren tasa altuenak eta gehigarrienak ordaintzen hasten diren puntua Ingalaterrako eta Ipar Irlandako bera da. Era berean, aurrezkietatik eta dibidenduetatik datozen diru-sarrerak zergapetzeko erantzukizuna Erresuma Batuko Gobernuaren esku dago.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga, Kapital-irabazien gaineko Zerga, Aseguru Nazionalari egindako ekarpenak, zenbait onuratarako eta Estatuko pentsioa jasotzeko egin beharreko ekarpena HMRCri ordaintzen zaio, Galesko Gobernuak ez duelarik inongo diru kantitaterik ekarpen horiengatik jasotzen, salbu eta urtero jasotzen duen *Block Grant*-ekarpena.

Hori horrela, Galesko Parlamentuak, tributu arloan, eragozpen esanguratsuak ditu, Westminsterrekin negoziatu behar duelako, aurrekontuan edo zergetan edozein aldaketa egiteko. Mendekotasun horrek mugatu egiten du Galesek anbizio handiagoko eta bere behar espezifikoetara egokitutako politikak ezartzeko duen gaitasuna eta politikak berebiziko garrantzia hartzen du prozesu honetan[43].

Hala ere, Galesko Gobernuak lau zerga berri identifikatu ditu, eta sakonago aztertuko ditu, finantza-autonomia handitzeko eta herritarren beharrei hobeto heltzeko. Proposamen horiek neurri berritzaileak dituzte diru-sarrerak dibertsifikatzeko, zerga-bilketan ekitatea hobetzeko eta eskualdeko garapen ekonomikoa sustatzeko. Oraindik aztertzen ari diren arren, ekimen horiek erakusten dute Galesek bere finantzak gehiago kontrolatzeko eta Westminsterrekiko mendekotasuna murrizteko interesa duela, tokiko lehentasunetara hobeto egokitutako politikak diseinatzeko aukera emanez.

Horien artean dago Lugorrien gaineko Zerga, garatu gabeko lursailen erabilera eraginkorra sustatzeko, hiri- eta landa-berroneratzea sustatuz. Gizarte-laguntzaren gaineko Zerga, biztanleriaren sektore ahulenei mesede egiten dieten gizarte-programak finantzatzeko, Erabili eta Botatzeko plastikoari ezarritako Zerga, ingurumen- eta jasangarritasun-politikekin bat datorrena eta erabilera bakarreko plastikoen erabilera murrizteko helburua duena eta azkenik, Bisitarientzako Zerga, turismoa diru-sarreren iturri gisa aprobetxatzeko neurri bat izango litzatekeena, eta horrek azpiegitura eta zerbitzu publikoak finantzatzen lagunduko lukeena.

Proposamen hauek erakusten dute Galesko Gobernuak bere ekonomiaren gaineko kontrol handiagoa izateko eta gizarte- eta ingurumen-arloko hainbat gairi modu zuzenagoan heltzeko nahia duela[44].

EAEren kasuan, Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak arautzen ditu zeintzuk diren itundutako zergak eta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoei beren zerga araubidea mantendu, zehaztu eta arautzeko gaitasuna onartzen die.

---

[42] 2019az geroztik, Galesek tarte bakoitzeko zerga-tasak aldatzeko ahalmena du, ehuneko 10 punturaino, gorantz edo beherantz. Neurriaren arabera, zerga-tarte bakoitzeko libera bakoitzeko 10 penike Galesko Gobernuari bideratuko zaizkio. Horri Galesko Errentaren gaineko Zerga esaten zaio (*Welsh Rates of Income Tax*, WRIT). Praktikan, Galesko ministroek Erresuma Batuko gainerakoen tasa berdinei eutsi diete, eta horrek esan nahi du Galesko zergadunek Ingalaterrako eta Ipar Irlandako tasa bera ordaintzen dutela. Errenta tramoak zehaztea Erresuma Batuko Gobernuari dagokio.
Oinarrizko tasa %20koa da eta Galesko Gobernuak %10a zehazten duen bitartean beste %10a Erresuma Batuko Gobernuak zehazten du. 12.570 £tik 50.270 £rarteko errentek ordaintzen dute. Goiko tasa %40koa da eta Galesko Gobernuak %10a zehazten duen bitartean beste %30a Erresuma Batuko Gobernuak zehazten du. 50.271 £tik 125.140 £rarteko errentek ordaintzen dute. Tasa gehigarria %45koa da eta Galesko Gobernuak %10a zehazten duen bitartean beste %35a Erresuma Batuko Gobernuak zehazten du. 125.141 £tik gorako errentek ordaintzen dute.

[43] *Brexit*-ak areagotu egin du Galesen independentziari buruzko eztabaida, eta handitu egin du aukera horri ematen zaion babesa, tentsio politiko eta ekonomikoen ondorioz; hala ere, Galesko tributu-sisteman duen eragina oso txikia izan da, Westminsterrek aurrekontu-kontuetan duen mendekotasuna dela eta.

[44] https://www.gov.wales/developing-new-welsh-taxes#17809 (azken bisita 2024ko abenduak 17an).

Itundutako zergei dagokionez, bi mota bereiz daitezke: batetik, "araudi autonomoko zerga itunduak" deritzenak eta bestetik, "araudi erkideko zerga itunduak" izenekoak. Lehenengoetan, Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek eskumen osoa dute zerga horiek arautzeko, eta, besteetan, Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek Estatuak lurralde erkideko autonomia-erkidegoentzat une bakoitzean ezartzen dituen arau substantibo eta formal berberak bete eta errespetatu behar dituzte.

Ekonomia Itunaren eduki materialari eta zergen ituntzeari buruz hitz egiten den foroa Itunaren Batzorde Mistora[45] mugatzen da, eta bertan akordioak aho batez hartzen dira administrazio ezberdinen artean. Horren ondorioz, alderdietako batek ere ezin ditu Ekonomia Itunaren alderdiak bere kabuz aldatu, eta organo horretan eztabaidatu eta adostu beharko dira Ekonomia Itunarekin zerikusia duten kontuak.

Gaur egun indarrean dauden zerga itundu hauek aipa daitezke:

A) Araudi autonomoko itundutakoak:

Zuzeneko zergak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (helbidea Euskadin duten establezimendu iraunkorrak), Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zerga Osagarria, talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxieneko ezarpen-maila globala bermatzeko eta finantza-erakunde jakin batzuen interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga (azken hauek 2024ko abenduak 23ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostua).

Zeharkako zergak: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (sozietate-eragiketetan, kanbio-letretan eta horien ordezko edo igorpen-funtzioa betetzen duten dokumentuetan izan ezik).

Tokiko zergak: Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga eta tokiko beste zerga batzuk.

B) Araudi erkideko itunduko izaera dutenak:

Zuzeneko zergak: Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga, Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga, Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga, Erregai nuklear agortua eta energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboak sortzearen gaineko Zerga, Erregai nuklear agortua eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gaineko Zerga eta Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzketaren balioaren gaineko Zerga.

Zeharkako zergak: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Sozietate-eragiketak eta kanbio-letrak eta horien ordezko diren edo ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan igorpen-funtzioa betetzen duten dokumentuak, Aseguru-primen gaineko Zerga, Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga, Joko-jardueren gaineko Zerga, Jokoaren gaineko beste zerga batzuk, zerga bereziak, Finantza-transakzioen gaineko Zerga, Zerbitzu digital jakin batzuen gaineko Zerga, Plastikozko ontzi berrerabilgarrien gaineko Zerga, Hondakinak zabortegietan gordetzearen gaineko Zerga, Erraus-

[45] Estatuaren eta EAEren arteko bitariko organoa da eta 12/2002 Legearen 61. artikuluak ezartzen duenez, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa osatuko dute, alde batetik, Foru Aldundi bakoitzeko ordezkari batek eta Eusko Jaurlaritzako beste hainbatek, eta, bestetik, Estatuko Administrazioko beste hainbeste ordezkarik. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabakiak aho batez hartu beharko dituzte batzordeko kide guztiek eta 62. artikuluan arautzen diren honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio: a) Ekonomia Itunaren aldaketak adostea. b) Aurrekontu-egonkortasunaren arloan lankidetza- eta koordinazio-konpromisoak adostea. c) Bosturteko bakoitzean kupoa zehazteko metodologia adostea. d) Kapitulu honen 3. atalean zehaztutako Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea erabakitzea, bai eta horien funtzionamenduari, deialdiari, bilerei eta erabakiak hartzeko araubideari dagokiena. e) Kontzertu honetan aurreikusitakoa behar bezala aplikatzeko eta garatzeko unean uneko zerga- eta finantza-arloan beharrezkoak diren akordio guztiak.

keta eta hondakinen baterako errausketa eta zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko Zerga (azken hau 2024ko abenduak 23ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostua).

Udal tributuak ere existitzen dira, garrantzitsuenak, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga eta Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga direlarik.

EAEren kasuan, sistema aldebakarreko arriskukoa da[46], berau izanik Galesko sistemarekin (zein Espainiar Estatuko lurralde erkideko beste autonomia erkidegoekin) duen diferentziarik nagusiena eta aipagarriena. Izan ere, Estatuak ez du parte hartzen euskal erakundeek bildutako zerga kopuruan, eta ez du gastu publikoen estaldura bere gain hartzen, baldin eta EAEko erakundeek ezin badie bere betebeharrei aurre egin.

Tributuak ituntzeak esan nahi du Estatuak EAErengandik kupo global baten ekarpena jasotzen duela[47], Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa.

Zerga berrien ituntzeak euskal administrazioen finantza-gaitasuna handitzea edo murriztea eragin dezake, izan ere, zergak biltzeko ardura Foru Aldundien gain dagoelako, eta haien kudeaketaren arabera diru-sarrera publikoak gehiago edo gutxiago izango dira.

Ituntzea gertatu aurretik, zerga hori existitzen bazen eta Estatua bazen EAEn berau biltzen zuena, itundu ondoren, zerga horrek EAErentzat ez-itundutako zerga izateari utziko liokete, eta, ondorioz, kupoan konpentsazio gisa zenbatutako zenbatekoa kenduko litzateke, Estatuak zenbateko hori konpentsatu behar izateari utzita.

Hasiera batean, bildutako kopurua eta konpentsazio posiblea berdina izan litezkeenez, emaitza finantzarioa berdina izango litzateke. Hau da, adibidez, itundutako zergaren bidez 100 bilduko balitz eta ez-itundutako zerga gisa konpentsazioa 100 izango balitz, EAEren finantza-gaitasuna berdin mantenduko litzateke.

Ondorengo ekitaldietan ikusiko lirateke ondorio praktikoak. Adibidez, EAEk zerga horren bidez 120 bilduko balu, finantza-gaitasuna 20 handituko litzateke; aldiz, 80 bilduko balu finantza-gaitasuna 20an murriztuko litzateke. Hortaz, garrantzitsua da Estatuan zerga-erreforma bat egitean, hori ez izatea alde bakarrekoa; hau da, euskal instituzioen eta Estatuaren arteko borondatea beharrezkoa da, erreformak ondorio ekonomiko-finantzarioak baititu.

Ikusi denez, beraz, Gales eta EAEko ereduak oso ezberdinak dira eta bakoitzak, bere erara, deszentralizazio fiskalean aurrera egiten laguntzen dute, elkarrengandik ikasiz eta oztopoei aurre eginez.

---

[46] Ekonomia Itunaren sistema aldebakarrekoa da EAErentzat. Estatuak ez du esku hartzen euskal erakundeek lortutako diru-bilketan, eta ez du gastu publikoen estaldura bere gain hartzen, baldin eta EAEk ezin badie bere betebeharrei aurre egin. Ez-augarri horrek ez du parekorik lurralde erkidearekin, eta sistemaren funtsezko zutabea da; izan ere, kupoaren oinarria da EAEk ordainketari aurre egin beharko diola, zenbatekoa kendu gabe. Era berean, Europako Justizia Auzitegiak adierazi du euskal Lurralde Historikoak eta EAE lurralde autonomoak direla finantza eta zergei dagokienez, eta Ekonomia Ituna ez dela Europar Batasuneko zuzenbidearen aurkakoa, eta aldeko argudio gisa nabarmendu du sistema alde bakarrekoa dela, eta ez dagoela Estatuaren kontraprestaziorik EAErentzako finantza-egoera gaizki badoa.
Ikusi Kokott abokatu nagusiaren 2008ko maiatzaren 8ko ondorio orokorretan, C-428/06 A C-434/06, UGT La Rioja eta beste batzuk Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusien eta beste batzuen aurka metatutako gaiei buruzkoan.

[47] Abiaburu den urteko kupoaren kalkulua EAEko kupoa 2022-2026 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzen duen apirilaren 3ko 10/2023 Legean arautzen da. Horrela, 2022-2026 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa zehazteko, Autonomia Erkidegoak bere gain hartu gabeko kargen zenbateko osoari egozpen-indizea aplikatu behar zaio, eta dagozkion doikuntzak eta konpentsazioak egin behar dira.

5. Ondorioak

Galesek duen tributu-sistema eta EAEk duena, nahiz eta biek deszentralizazio fiskalean aurreratuak izan, ez dira berdinak eta aspektu askotan gainera kontrajarriak dira, besteak beste, Galesek ez duelako arriskurik asumitzen eta EAEk bai. Gainera, izandako elkarrizketetatik ondorioztatzen da Galesko herritarrek ere ez luketela arrisku hori asumitu nahi izango, Galesek duen garapen ekonomiko, demografiko eta politikoak muga direlako hori gauzatzeko.

Galesko biztanleria zahartzen ari da eta herritarren hezkuntza-maila, berriz, Erresuma Batuko batez bestekoa baino txikiagoa da, eta enplegagarritasunari eta lehiakortasunari eragiten die. Gainera, lau heldutik batek, gutxi gorabehera, ez du lan-merkatuan parte hartzen, eta horrek jarduerarik ezaren tasa handia eta diru-sarrera fiskalak murrizten ditu. Egoera hori larriagotu egiten da eskualdearen produktibitate txikiagatik, Brexit-agatik eta Europar Batasuneko funtsak ez izateagatik, aberastasuna sortzeko eta zerga-oinarria indartzeko duen gaitasunari kalte egiten baitio.

Bestalde, Galesko Gobernuak tributu eta finantza arloan muga nabarmenak ditu, hala nola, zorpetzeko ahalmen mugatua eta zerga berriak ezartzeko zailtasunak dituelako, Erresuma Batuko Gobernuaren oposizioa dela eta. Galesko Gobernua saiatu izan da Erresuma Batutik zerga batzuk, aipatzekoa, aireko bidaiarientzako Zerga eta Ibilgailuen gaineko Zergeen transferentzia lortzen, baina arrakastarik gabe, oztopo politiko eta ekonomikoen ondorioz.

Galesen zergen gaineko botere handiagoa bereganatzeko aukera eztabaidatzen da, baina horrek ekarriko lukeen arrisku finantzarioak, Erresuma Batuko funtsekiko mendekotasunarekin batera, kezka sortzen du.

Egiturazko oztopo horiek zaildu egiten dute funtsezko proiektuak finantzatzea eta zerga-politika independenteak ezartzea, eta horrek azpimarratzen du beharrezkoa dela bi gobernuen arteko konponbide integrala eta lankidetza, garapen iraunkorra bermatzeko. Hori horrela, Galesko Gobernuak Erresuma Batuko Gobernuarekin akordio justu eta bidezkoa lortzera bideratutako ikuspegia lehenesten du, autonomia fiskal oso bat bilatu beharrean eta beste herrialde eta eskualde batzuekin loturak ezartzea du helburu Galesko Gobernuak deszentralizazio prozesuan jarraitzeko.

Galesko Gobernuak gehiago parte hartu nahi du Erresuma Batuan hartutako erabaki fiskal eta politikoetan, politika nazionalak Galesen premia ekonomiko, sozial eta kulturaletara hobeto egokitzen direla ziurtatzeko, tokiko erronkei heltzeko eta herritarren ongizatea sustatzeko gaitasuna indartuz.

Amaitzeko, esan behar da EAEko Ekonomia Itunaren sistemak bere finantzen gaineko kontrol esanguratsua, zerga itunduen bilketa osoa eta epe luzerako planifikazio estrategikorako gaitasuna ematen dituen bitartean, Galesek Erresuma Batuko Gobernuaren erabakien mende dagoen egitura fiskal bati egin behar diola aurre. Zerga-sistemen konplexutasunak eta egungo murrizketek erronka handiak dakarzkio Galesi, zerga-autonomia handiagoa bilatze aldera. Euskal ereduarekiko interesa dagoen arren, Galesen errepikatzea zaila da, egiturazko desberdintasunak eta desberdintasun politikoak direla medio, eta horrek Galesko errealitatera egokitutako ikuspegi mailakatu baten beharra ekartzen du.

6. Informazio iturriak eta bibliografia

AGUIRRE DE LA HOZ, J. (1980). *Ley Orgánica de Financiación de las Comunidades Autónomas*, Presidencia del Gobierno. Secretaría General Técnica. Subdirección General de Documentación, Madril.

ALBI, E. (1978). "El Federalismo fiscal", *Hacienda Pública Española*, Instituto de Estudios Fiscales, 51. zbk, Madril, 43-44. orrialdeak.

DE LA HUCHA CELADOR, F. (2006). *El régimen jurídico del Concierto Económico*, Ad Concordiam.

HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. (1998). *Derechos Históricos y Constitución*, Taurus.

LAGO PEÑAS, S. eta MARTÍNEZ VÁZQUEZ, J. (2010). "La descentralización tributaria en las Comunidades Autónomas de régimen común un proceso inacabado", *Hacienda Pública Española*, 192 zbk, 129-151. orrialdeak.

LÁMBARRI GÓMEZ, C. eta LARREA JIMÉNEZ DE VICUÑA, J.L. (1995). *El Concierto Económico*, IVAP.

NATIONAL ASSEMBLY FOR WALES (NAW). (2004). *Report of the Richard Commission*. Cardiff: Commission on the Powers and Electoral Arrangements.

OLIVERAS, N. (1999). *La "devolution" en el Reino Unido: Gales, Escocia e Irlanda del Norte*. Fundació Carles Pí i Sunyer d´Estudis Autonómics i Locals, Bartzelona.

PORRES AZKONA, J. (1992). *Política y Derecho. Los Derechos Históricos vascos*. IVAP.

UTRILLA DE LA HOZ, A. (2006). "Comparación internacional de los modelos de descentralización fiscal", *Mediterraneo Económico*, 10.zbk, 167-195.orrialdeak.

ZUBIRI ORIA, I. (2000). *El sistema del Concierto Económico en el contexto de la Unión Europea*, Círculo de Empresarios Vascos.

Empowerment and responsibility: devolving financial powers to Wales.

Empowerment and Responsibility: Legislative Powers to Strengthen Wales.

Barnett Squeezed? Options for a Funding Floor after Tax Devolution.

Fair Funding for Taxing Times? Assessing the Fiscal Framework Agreement.

For Wales Don't (Always) See Scotland: Adjusting the Welsh Block Grant after Tax Devolution.

Independent Commission on the Constitutional Future of Wales: final report.